



BEGOÑA IBARROLA

ILUSTRAZIOAK JESÚS GABÁN

TALISMANAREN KLANA

desclée

BEGOÑA IBARROLA

TALISMANAREN KLANA

Ilustrazioak: Jesus Gabán

Itzulpena: Miren Agur Meabe

desclée



Mikelek sekretu bat zuen, inork ez zekiena: Gerlarien klaneko kide izatea zen bere ametsik handiena. Uste zuen klan horretako mutilak gelako argi, indartsu eta estimatuenak zirela. Oso gutxi sartzen ziren klanean, baina Mikel edozein frogari aurre egiteko prest zegoen.

—Zuen klanean sartu nahi nuke —esan zien behin, adorea bilduta.

—Nola ausartzen zara hori eskatzera, txikito? —erantzun zion buruzagiak—. Gure taldean sartzeko, froga zail bat gainditu behar da, eta ez zaitut horretarako kapaz ikusten.

—Eskatzen didazuen edozer egiteko prest nago —esan zien Mikelek seguru agertu nahian, nahiz eta benetan beldurtuta egon.

—Bale... Bada hilerrian soilik hazten den lore bat, ilbete-gauetan zabaltzen dena. Lore horietako bat ekartzen badiguzu, gure klaneko kide izendatuko zaitugu.



Ilargi biribil eta distiratsuak argitzen zuen gaua Mikel hilerrira hurbildu zenean. Beste behin ere, ikarak ez zion sarrerako atetzar herdoildua zeharkatzen uzten, eta hankak dardaraka hasi zitzaizkion. Hala ere, ezin zuen huts egin, hilabeteak pasatu ahala klaneko kideen burlak gero eta krudelagoak zirelako.

Egun batean, lurrera bota zioten motxila; beste behin, zango traba egin, eta Mikel erori egin zen; eta bere lepotik barre egiten zuten askotan, kakati, mengel edota lau-begi deituta. Mikel kokoteraino zegoen tratu txar horiekin.


Bere buruarekin haserretu zen berriz ere beldurra sentitzeagatik. Orduan, ukabilak estutu, arnasa sakon hartu eta ateari bultza egitea erabaki zuen, indar guztiekin. Atearen kirrinkak ileak tente jarri zitzaizkion.

Lore berezi hura aurkitu eta Gerlarien klanekoei eraman behar zien, trofeo gisa.





Oinez hasi eta denbora gutxira usain sarkor bat nabaritu zuen. Entzuna zuen ilargi-loreak usain berezia botatzen zuela irekitzen zenean. Horrenbestez, usainari jarraitzea erabaki zuen.



Mikel izututa zegoen: hilobien artean ibiltzea ez zen paseo polita, eta lehenbailehen alde egin nahi zuen handik... Usaimena gidari, beste pauso batzuk egin, eta bat-batean gelditu egin zen. Aurrean zeukan lorea!

Paregabea zen. Linterna zuzendu, eta petaloei erreparatu zien. Lili erraldoi baten petaloen antzekoak ziren, laranja eta moreak. Lorearen inguruan ipurtargi mordoa zebilen.

—Gustuko al duzu gure lorea? —galdetu zion ipurtargi batek.

Mikel harritu egin zen zomorro batek hitz egiten ziola ikusita, eta erantzun zion:

—Bai. Izugarri polita da!

—Lorearen nektarra xurgatzen dugu loratzen denean, eta horri esker bizi gara —esan zion beste ipurtargi batek.

—Baina gero eta ilargi-lore gutxiago daude, jendeak eraman egiten baititu —kexatu zen beste bat—. Loreok ezin dituzte jasan gizakien zaratak, eta horregatik hazten dira toki isiletan.